

Debako irulea



Alex Turrillas - J. Ignacio Treku

La hilandera de Deba

Honako argitalpen hau, Debako irulearen begiratokia apaintzeko egin diren testu eta marrazkietan oinarrituta dago.

Lan hori Debako Udalak eta "Debegesa", Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak, egin dute. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Saila eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saila izan dituzte laguntzaile.

Haiei guztiei gure eskerrik zintzoena.

La presente publicación está basada en los textos e ilustraciones realizados para la ornamentación artística del mirador de La Hilandera de Deba.

Dicha obra fue realizada por el Ayuntamiento de Deba y por la Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba "Debegesa". En la misma colaboraron el Departamento de Transportes y Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Departamentos de Agricultura y Pesca e Industria Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

A todos ellos nuestro más sincero agradecimiento.

Egileak - *Los autores.*

Egilea/Realización: Kaioa asp.
Hondartza, 5-6 behea • Deba (Gipuzkoa)
Tel.: 943 192 030 • E-mail: kaioadeba@euskalnet.net

Testuak/Textos: Alex Turrillas

Marrazkiak/Ilustraciones: J. Ignacio Treku

Inprimatzailea/Impresión: Graphidaps

Fotomekanika/Fotomecánica: Zyma

I.S.B.N.: 84-607-8340-5

D.L.: SS-0884/03



Chiturez, mitoez eta ele-
zaharrez josita dago

euskal kultura zaharra.
Irulea dugu elezahar
ezagunenetako bat:
maitasun-istorio ederra
eta hunkigarria, egiaren eta
fikzioaren artean omen
dagoena.


Deban gertatu zen
“istorioa”, 1.500 urtearen
inguruan. Irulea izena eman
zioten kondairari, elezaha-
rreko protagonista batek,
Zubelzu dorretxeko Andra Madalen
andreak, irutea -antzinako arte
zaharra- oso gogoko zuelako.



La ancestral cultura
vasca es rica en tra-

diciones, mitos y leyendas.
Una de las leyendas más
populares es la de “La Hilan-
dera”, una bella y dramática
historia de amor, posible-
mente a caballo entre
la realidad y la ficción.

La “historia” se sitúa
en Deba, hacia el año
1500, y recibe su nombre
por la desmedida
afición al viejo arte de
hilar, de una de sus protagonis-
tas, Andra Madalen, señora de la
histórica casa-torre de Zubelzu.



Katalintxu alabarekin bizi omen zen andrea. Euskal Herriko portuetako itsasgizonek frantziarren kontra izan zuten gerra odoltsu eta luzean hil egin omen zitzaizkion senarra eta semeak.

Horrenbeste sufritu arren, inguruko herrietako emakumerik ederrena omen zen, eta bere aurpegiak oraindik eusten zion gaztaroko edertasunari. Katalintxu neskatxa ama bezain ederra omen zen.

Cuentan que la bondadosa dama vivía con su hija Katalintxu. Su esposo y la mayor parte de los varones de esta casa habían muerto en la sangrienta y prolongada guerra que los marinos de los puertos vascos libraban contra los franceses.

Pese a tanto sufrimiento, el rostro de aquella mujer , considerada la más bella del país, seguía conservando la belleza de sus años jóvenes, una belleza que había transmitido a la joven Katalintxu.





Egun batean, ama eta alaba hondartzan oinez zebiltzala, iskanbila ederra ikusi zuten. Itsasoan galdutako mutiko bat zetzan hondarretan, konortarik gabe.


Frantziarra zela agerikoa zenez, jendetza, bere onetik aterata, mendeku hartzeko eta gaztea hiltzeko modua eztabaidatzen ari zen, urka, sua ala arkabuza erabiliko ote zuten.

Andreak, herrian izen ona zuenez eta herrikoek begirunez hartzen zutenez, ederki kostata, baina gazteari bizia salbatu zion, eta etxera eraman zuen senda zedin.

Cierto día, cuando madre e hija paseaban por la playa, fueron testigos de un gran tumulto. Sobre la arena, un joven náufrago yacía inconsciente.

Ante la evidencia de su procedencia francesa, una alterada multitud discutía sobre el modo de dar forma a la venganza y rematarlo. La disputa era si mediante horca, hoguera o arcabuz.

Intervino la señora, y valiéndose de su prestigio y de la buena consideración que aquellas gentes tenían hacia su persona, consiguió, no sin esfuerzo, salvar la vida del joven y trasladarlo a su casa, donde podría reponerse.



Itsasoan galdutako mutikoa Gaston de Chatelnauday zen, d'Aprefort bizkondearen semea, hain zuzen. Bizkondea zuela bi urte hil zen, eta noble-titulua edukitzeaz gain, kostaldeko gizonik gorrotagarriena ere bazen.


Gastonek, zorionez, aitarengandik noblezia-titulua besterik ez zuen hartu oinordetzan, eta frantziar gerra-karabela baten agintaria zen.

Gaztetasunaren kemenak abentura arriskutsu bat hastera bultzatu zuen Gaston bere ausardia erakusteko, eta Debako hondartzaraino eraman zuen zoritzarreko abenturak.

El joven náufrago, llamado Gastón de Chatelnauday, era hijo del vizconde d'Aprefort, muerto hacía dos años; un personaje que, además de su nobiliario título, también había ostentado el de hombre más odiado de la costa.

De los dos títulos, por suerte, Gastón había heredado tan sólo el primero, el nobiliario, además del mando en una carabela de guerra francesa.

El temerario arrojó de su juventud le había llevado a demostrar su valor en una arriesgada aventura, una trágica aventura que le arrojó a los arenales de Deba.






Onera egin zuen mutikoak emakumeen etxean, eta bi emakumeek oso begikoa zuten gaztea, baita gazteak bi emakumeak ere, eta elkarrenganako begikotasuna frantziar mutikoaren eta Katalintxu neskatxaren arteko maitasun bilakatu zen.

Egunak joan eta egunak etorri, Gastonen amaren morroi bat heldu zen bi emakumeen etxera, Andra Madalenek Gastonen amari semearen gorabeheren berri eman baitzion. Bizkonde gaztea sendatu bezain laster etxeratzeko mezua zekarren morroiak. Eta berri txarra zela eta, gazteek bihozmina izan zuten, maiteminduak elkartzen zituen bezain handia.

Durante la convalecencia del invitado en la casa, fue naciendo una gran simpatía entre éste y las dos mujeres; una simpatía que se convirtió en amor entre el joven francés y la joven Katalintxu.

Pasado un tiempo llegó a la casa un criado de la madre de Gastón, quien había sido avisada por Andra Madalen de los avatares de su hijo. El criado portaba un mensaje que exigía el retorno del joven vizconde tan pronto como estuviese repuesto. Y con el mensaje comenzó a nacer en los jóvenes un sentimiento de pena, una pena tan grande como el amor que les unía.



Egun batean, Ingalaterrako bandera zuen itsasontzi batek Debako badian bota zituen aingurak. Itsasontziko kontramaisua lehorreratu zen, bizkonde gazteari mezu bat zekarkiola.

Amarena zen mezua, eta berehalaxe etxeratzeko agintzen zion, eta segidan itzultzen ez bazen, aberriari traizio egitea leporatuko ziola eta zapuztuko zuela zioen amak.

Gastonek aholku eskatu zion Andra Madaleni, eta bere herrira itzultzea gomendatu zion andreak. Mutikoak, ordea, ez zuen emakumeengandik aldendu nahi, eta berarekin joatea eskatu zien, baina Andra Madalenek ezetz esan zion.


Elkarrengandik aldentuko zirela ikusirik, Katalintxuk eta Gastonek zin egin zioten elkarri betiko maite izango zutela elkar.

Cierto día fondeó en la bahía una nave de bandera inglesa. De ella desembarcó uno de sus contramaestres, portador de un mensaje dirigido al joven vizconde.

El mensaje, firmado por su madre, le conminaba a volver so pena de ser considerado traidor a la patria y repudiado como hijo.

Gastón pidió consejo a Andra Madalen, quien le recomendó partir a su tierra. Deseando evitar la separación, el joven propuso a las dos mujeres partir junto a él, pero Andra Madalen se negó.

Ante la inevitable separación, Katalintxu y Gastón prometieron reunirse incluso más allá de la muerte.






Maitea joan ondoren, Katalintxuk kolpe latza hartu zuen, eta gaixotu egin zen. Hilabete batzuk beranduago, ordea, onera egin zuen. Amak alabaren gaixotasuna maitasuneko gaitza zela ikusirik, eta sendagai egokia maitearekin elkartzea zela jabeturik, alabarekin Frantziara albait arinen joatea erabaki zuen.

Egun batzuk igaro ondoren, ordea, Gaston bere herrira eraman zuen itsasontzi bera itzuli zen Debara. Oraingoan kontramaisuak berri txarra zekarkien emakumeei: bataila batean hil egin zen Gaston eta maitearen odolaz zikindutako gurutzea eman zion Katalintxuri.

Tras la partida de su amado, Katalintxu no pudo soportar el duro golpe y enfermó gravemente. Pasaron los meses, y aunque de forma leve, fue mejorando la salud de la frágil Katalintxu. Viendo la madre que el mal de su hija era de amor y la mejor medicina era el reencuentro con quien tanto la amaba, decidió partir en breve junto a ésta hacia tierras de Francia.

Pero a los pocos días volvió la misma nave que se había llevado a Gastón. Esta vez el contramaestre les daba la trágica noticia de su muerte en batalla, y entregaba a Katalintxu un crucifijo manchado de sangre.



Maitearen heriotzaren berri jakin eta lau egunetara hil zen Katalintxu gajoa, berriz gaixotu eta gero. Alabaren heriotzak erotu egin zuen ama, eta egoera sinetsi ezinik, ez zuen alaba hobiratu nahi.


Azkenik, aitor-erantzulearen aholkua aintzat hartu zuen, eta jazotakoaz jabetu, familiaren kaperan sartu, eta bere baitan bildu zen Andra Madalen, Katalintxu maitearen alde otoitz egitera. Pixkanaka-pixkanaka, amaren bihozmina lasaitasun bilakatu zen, eta txiroei zein gaixoei laguntzen eta alabaren hilobian otoitz egiten ematen zituen egunak emakumeak, goruan iruten zuen bitartean.

Denboraren poderioz Andra Madalen gaixotu egin zen. Hala ere, ez zion kaperara joateari utzi, senideek eta adiskideek ez joateko esan arren, eta egun batean, hilda aurkitu zuten bertan.

A los cuatro días de la fatal noticia, tras una rápida recaída, murió Katalintxu. La madre, enloquecida, se negaba a admitir la realidad, oponiéndose a que el cuerpo de su hija fuese enterrado.

Ante los consejos de su confesor aceptó la realidad recogándose en la capilla de su familia y rezando por el alma de su querida Katalintxu. Poco a poco el dolor se convirtió en serenidad y la vida de aquella buena mujer se centró en el socorro a los pobres, los enfermos y a la oración ante la tumba de su hija mientras hilaba con la rueca.

Algún tiempo después enfermó Andra Madalen. Pese a los ruegos de sus más allegados, nunca dejó de acudir a la capilla donde un día la encontraron muerta.





Zubelzuko andrea familia noblearen hilobian ehortzi zuten, gaur egun Irulearen kapera bezala ezagutzen den kaperan, hain zuzen. Bere gorpuaren ondoan gorua jarri zioten, bizitzako ordu latzetan horren lagungarri gertatu zitzaiona.

Debako parrokia-elizan dago kapera miresgarria, andreak otoitz egiten eta iruten horrenbeste denbora ematen zuen tokian. Hilobiko aurrealdeko hilarrian Zubelzutarren armarrria dago. Hilarriaren atzean, duela bost mendetik, Andra Madalen eta Katalintxu alaba daude ehortzirik. Katalintxu neska ederraren bihotzak eta Gastonen bihotzak oraindik elkaturik diraute, zin egin baitzioten elkarri betiko maite izango zutela elkar.

La señora de Zubelzu fue enterrada en el sepulcro de la noble familia en la capilla que hoy es conocida como de “La hilandera”. Junto a su cuerpo se colocó la inseparable rueca, aquella que en vida tanto le había acompañado.

La maravillosa capilla en la que tanto tiempo pasó rezando e hilando la ejemplar señora, se encuentra en la iglesia parroquial de Deba. La lápida frontal del sepulcro muestra los escudos de armas de la casa de Zubelzu. Tras la lápida, desde hace cinco siglos, descansan Andra Madalen y su hija Katalintxu, la bella joven cuyo corazón, cumplida la promesa, sigue unido al de Gastón, incluso más allá de la muerte.



Gorua Bilduma